



## **Trebakuntza 2009/02: ADITZAREN ASPEKTUA**

Udal idazki askotan, denboraren aspektua ez da zuzen erabiltzen. Askotan, **-t(z)en** gaizki erabiltzen da, lekuz kanpo. Hona hemen zuzendu beharreko akatsak:

**OHARRA:** asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

### **OHIKO AKATSAK**

1. *\*[Akta batean] Udalbatzak txostena onartzea **erabakitzen du**, eta, horrenbestez, bilera **bukatzen da**.*
2. *\*[Kronologia batean] 1998ko martxoan: **hauteskundeak egiten dira** eta XXX alderdiak **irabazten du** gehiengo osoz.*
3. *\*[Ahozkoan] **Sinatzen didazu** agiri hau, mesedez?*
4. *\*Araitz herria Nafarroan **aurkitzen da**, Oreatatik eta Lizartatik oso gertu.*
5. *\*[Ahozkoan] Bihar zer ordutan **geratzen gara** liburutegira joateko?*
6. *\*[Ahozkoan] Isilik, mesedez. **Hasten dugu** bilera?*
7. *\*Administrari lanposturako azterketa 10:00etan hasi eta 11:30ean **bukatzen da**.*

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95  
[bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org)

Done Petri 14, behe  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72  
[gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org)



## ZUZENKETAK ETA AZALPENAK

1. **-t(z)en ezin da erabili bukatuta dauden ekintzak adierazteko.** Normalean, **ohiturak edo ohiko diren ekintzak adierazteko** erabiltzen da (Ad. **Astero gelditzen dira** futboleko jokatzeko.). Ekintza bukatuta badago, **“erabaki du”, “bukatu du”** eta horrelakoak erabili behar dira.

Ad. Udalbatzak txostena onartzea **erabaki du**, eta, horrenbestez, bilera **bukatu da**.

2. Gaztelaniaz zuzena da iraganeko gertaerez ari garela presente historikoa erabiltzea (ad. *en marzo de 1998 se convocan elecciones*). Euskaraz, horrelako kasuetan, **lehenaldia erabili behar da** derrigor.

Ad. 1998ko martxoa: hauteskundeak **egin ziren** eta XXX alderdiak **irabazi zuen** gehiengo osoz.

3. Ekintza **etorkizunean** kokatzen bada, **ezin da -t(z)en erabili**. Nahiz eta ekintza hemendik segundo batera bakarrik izan, **-ko/-go erabili beharko dugu** euskaraz.

Ad. **Sinatuko didazu** agiri hau, mesedez?

4. Aurreko batean adierazi genuenez, **“aurkitzen da” gaztelaniazko “se encuentra” espresioaren kalkoa da**. Euskarazko forma zuzena eta jatorra **“dago”** da.

Ad. Araitz herria Nafarroan **dago**, Oreatatik eta Lizartatik oso gertu.

Bestalde oso ohikoa da **“kokatuta dago”** espresioa erabiltzea, eta hori ere gaztelaniazko kalkoa da (=“está situad@”), **eta ez da zuzena**.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95  
[bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org)

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72  
[gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org)



5. Goraxeago azaldu dugunez, ekintza **etorkizunean** kokatzen bada, **ezin da -t(z)en erabili, ezta horrelako kasuetan ere.**

Ad. Bihar zer ordutan **geratuko gara** liburutegira joateko?

Ad. Isilik, mesedez. **Hasiko dugu** bilera?

Ad. Administrari lanposturako azterketa 10:00etan **hasi** eta 11:30ean **bukatuko da.**

\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariek:

- Telefonoz: 943260372 (Imanol) eta 946279195 (Iratxe)
- Posta elektronikoz: [gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org) (Imanol) eta [bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org) (Iratxe)

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95  
[bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org)

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72  
[gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org)